DATU PERTSONALAK TRATATZEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA 10

Baliozkotze Kod.: 9PWYC6Z7MMJ72E4H5C6RWRRNE
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 27

1 Kontratuaren xedea

Plegu honen xedea da Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen ordenagailuen parke osoaren mantentze-lanak arautuko dituzten baldintza teknikoak ezartzea. Baldintza horiek 2. atalean zehaztu dira.

2 Ekipamendua

Marka	Mota	Modeloa	Kop.	Bermea
HP	Eramangarria	EliteBook 840 G8 14" FHD iCi5-1135G7 W10PRO64 8GB 256GB NVMe Mouse	19	2026-04-30
HP	Eramangarria	ProBook 650 G8 15,6" FHD iCi5-1135G7 W10PRO64 8GB 256GB PCIe NVMe SSD Mouse	105	2026-04-30
Lenovo	Eramangarria	Lenovo ThinkPad X1 Carbon Gen13 Mouse	8	Premier Support bermea 2028-08-19ra arte, bateria-luzapen zigilatuarekin
HP	AIO	ProOne G6 22" Core i5-10500 8GB 256GB M.2 2280 PCIe W10 Pro KBSmart Mouse	67	2026-04-30
HP	AIO	ProOne G6 22" UKIPEN-PANTAILAREKIN Core i5-10500 8GB 256GB M.2 2280 PCIe W10 Pro KBSmart Mouse	5	2026-04-30
HP	Mahai gainekoa	PRODESK 600 G6 SFF iCi5-10500 3,1GHZ W10PRO64 2x4GB 256GB M.2 2280 PCIe KB SmartCard Mouse USB	546	2026-04-30
HP	Lan-estazioa	Z2 SFF G8 Xeon W- 1350 2X8GB UDIMM NVIDIA T1000 4GB 256GB PCIe DVDWR W10 KBsmartCard+Mouse	5	2026-04-30
HP	Lan-estazioa	Z2 TWR G8 Xeon W-1350 2x8GB uDIMM 256GB M-2 2280 NVIDIA T1000 4GB W10 Pro KBSmartcard Mouse	18	2026-04-30
HP	Pantaila	E23 G4	658	2026-04-30
HP	Pantaila	E24 G5	1	2026-04-30
HP	Pantaila	E27 G4	8	2026-04-30
HP	Pantaila	E27 G5	1	2026-04-30
HP	Docking	HP USB-C Dock G5 Business Slim Smartcard Keyboard Español Mouse	41	2026-04-30

AIOek, mahai gaineko ordenagailuek eta lan-estazioek teklatua eta sagua dituzte.

Eramangarriek sagua dute.

Dockingek sagua eta teklatua dituzte.

Mantendu beharreko ekipamenduaren serie-zenbaki guztiak adjudikaziodunari emango zaizkio kontratua sinatu ondoren.

Baliozkotze Kod.: 9PWYC6Z7MMJ72E4H5C6RWRRNE
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 27

Kontratua indarrean dagoen bitartean, ekipamenduen mantentze-kontratuari baja eman ahal izango zaio, galera edo lapurreta dela eta, besteak beste.

2.1 Mantentze-lanak

Adjudikazioduna kontratu honen xede diren ekipoen mantentze-lanaren zerbitzu integrala ematera behartuta dago, ondorengo zehaztapenak betez:

- Zerbitzuak "akatsak dituzten piezak" konpontzeko edo aldatzeko kudeaketa estaliko du eta ekipoak osatzen dituzten elementu guztiena (kanpokoak, barnekoak, elektrikoak eta mekanikoak).

- Mantentze-lanen jarduera guztiak, matxuren konponketak eta piezak aldatzea, eskulana barne, ekipoa dagoen tokian egingo dira.

- Aldatu beharreko elementuen ordez, konpondu ezin direlako, pieza berriak eta jatorrizkoak jarriko dira. Hori ezin bada egin, zaharkituta egoteagatik edo antzeko beste arrazoiren batengatik, antzeko ezaugarriak dituzten piezekin ordezkatuko dira.

- Disko gogorrak huts eginez gero, bezeroaren OSaren irudia kargatu beharko da, eta ekipoa erabiltzeko moduan utzi, urruneko euskarria konektatu ahal izateko. Horrez gain, informazioa eskuragarria bada, euskarri berrian lehengoratu beharko da.

- Arazoa ezarritako epearen barnean ezin denean konpondu edo ekipoa tailerrera eraman behar bada, modelo berarekin edo handiagoko batekin ordeztu beharko da jarritako irudiaren azken bertsioarekin, lanpostua betetzeari utzi gabe.

- Hala ere, arestian adierazitako guztiari dagokionez, Getxoko Udaleko IKT langileek, ezer baino lehen, askatasuna izango dute gorabeherak konpontzen saiatzeko, ekipoen manipulazio teknikoa mugatu gabe, baina betiere eskainitako bermeari edo zerbitzuari kalterik egin gabe.

- Adjudikaziodunak diagnostikoa egiteko on-site zerbitzua eman beharko du udaleko IKT unitateak urrutitik diagnostikatu ezin dituen gorabehera guztietarako (komunikazio- edo software-arazoengatik urrutitik piztu, abiarazi edo sartu ezin diren ekipoak; urrutiko sarbidea eragozten duten ekipamenduak; urrutitik sartu arren, gorabehera zehaztu ezin den ekipoak).

- Fabrikatzailearekin bermeak kudeatzea, beharrezkoa denean.

- Eskulana eta joan-etorria mantentze-lanaren barnean izango dira.

- Matxura erabilera oker edo arduragabearen ondorio bada, adjudikaziodunak stocka izan beharko du matxuratutako ekipamenduaren antzeko ezaugarriak edo ezaugarri hobeak dituen ekipamendua gehienez ere 30 egunez mailegatzeko, lanpostua betetzeko moduan gera dadin behin betiko konponbide bat aurkitu bitartean. Adibidez, pantaila bat erori delako apurtzen bada, adjudikaziodunak pantaila bat utzi beharko du beste bat erosi arte.
  Horrelako gertaerei erantzuteko, stockean honako ekipamendu hau eduki beharko litzateke:

  - Bi ProBook 650 G8 15,6" eramangarri edo baliokide handiagoa.
  - Lau PRODESK 600 G6 mahai gaineko ordenagailu edo baliokide handiagoa.
  - Z2 G8 lan-estazio bat, SFF edo dorre formatuan edo baliokide handiagoa.
  - Gutxienez 23"-ko lau pantaila.

Baliozkotze Kod.: 9PWYC6Z7MMJ72E4H5C6RWRRNE
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 17. orrialdea, guztira 27

- HP ProOne 600 G6 AIO bat edo baliokide handiagoa.
- Bi HP USB-C Dock G5 edo handiagoa.
- Bost sagu eta teklatu.

2.1.1 Estaldura

Erantzun-denborak eta matxurak konpontzeko gehieneko denborak ondorengo koadroan adierazitakoak dira edozein ekipamendutarako:

Erantzun-denbora (lanegunetako orduak)	Konpontzeko denbora (lanegunetako orduak)
3	7

Erantzun-denbora: Gorabehera jakinarazten denetik, estaldura-ordutegiaren barnean, ekipoan benetan egiten den aurrez aurreko esku-hartzearen hasierara arte dagoen denbora.

Ebazpen-denbora: Gorabehera jakinarazten denetik amaitzen den arte igarotako denbora.

Bi kasuetan, orduak 08:00ak eta 15:00ak bitarteko tartean zenbatuko dira, eta astelehenetik larunbatera (lanegunak).

2.1.2 Zigorrak

Matxurak konpontzeagatik aktibo ez dauden denboren baturak eskaintzan bermatutako denbora-muga gaindituko balu, atzerapen-denbora hori gainditzen den aldi bakoitzeko ekipoaren hileroko fakturazioaren % 10arekin zigortuko da, eta bermatutako denbora 7 aldiz gaindituko balitz, ekipamendu horren hileroko kostuaren % 100arekin zigortuko da.

2.1.3 Gorabeheren kudeaketa

Hasiera batean, Getxoko Udaleko IKT unitatea izango da solaskide baliodun bakarra gorabeherekin zerikusia duen edozein kudeaketa egiteko; dena den, kontratuan zehar, erabiltzaileek beraiek gorabeherak adjudikaziodunari zuzenean jakinarazteko aukera ezartzen da, adibidez, IKT unitatearen lan-ordutegitik kanpo.

Lizitazio honen xede den kontratuarekin lotutako gorabeherak Getxoko Udalak duen Service Desk tresnaren bidez kudeatuko dira une oro, eta, beraz, adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du eskaintzen zaizkion bitartekoen bidez erabiltzeko, dela posta elektronikoaren bidez, dela web-aplikazioaren bidez.

Gainera, telefono-linea bat izan beharko da gorabeherei erantzuteko.

Nolanahi ere, gorabeherekin lotutako kudeaketa guztiak autonomia-erkidegoko hizkuntza ofizialetan —hots, gaztelaniaz zein euskaraz— emateko aukera eskatuko da.

Gainera, Getxoko Udalaren IKT unitateak gorabehera guztiak koordinatu eta ikuskatuko ditu, eta haiek konpontzeko lehentasunak finkatuko.

Aldian-aldian gorabeheren estatistikak bidali beharko dira, eta neurrira eta eskariaren arabera txostenak egiteko aukera emango da.

Baliozkotze Kod.: 9PWYC6Z7MMJ72E4H5C6RWRRNE
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 18. orrialdea, guztira 27

3 Lanen jabetza eta konfidentzialtasuna

Hitzartutako hornidurak betetzeko, Getxoko Udalaren jarduerari lotuta enpresa adjudikaziodunari eman beharreko datu guztiak konfidentzialak dira, eta haren zaintzapean geratuko dira, hala badagokio; informazio horien identitatea nahiz sekretua gorde beharko ditu, eta eman diren xederako baino ez dira erabiliko.

Adjudikaziodunarekin lan egiten dutenek, sekretu profesional zorrotzena betetzeaz gain, Getxoko Udaleko langileen aurrean neutraltasun eta diskrezio handienak gordetzeko betebeharra izango dute. Emandako edo esandako informazio guztia, baita parte hartzen duten elkarrizketa guztiak ere, zorrozki konfidentzialtzat joko dira.

Lizitazio honen bidez, esleipendunak datu pertsonalak eskuratu ahal izango ditu, eta Getxoko Udala izango da datu horien tratamenduaren arduraduna, eta bera izango da tratamendu-eragilea. Kasu horretan, datu horiek eskuratzea ez da datu-komunikaziotzat hartuko, DBEOren Erregelamenduaren 28. artikuluan aurreikusitakoa betetzen denean. Datuen tratamenduari buruzko eskakizun eta jarraibide zehatzak administrazio-klausula zehatzen agirietan ezartzen dira, bai eta Datu Pertsonalen Tratamenduari buruzko plegu tekniko hauen eranskinean ere. Esleipendunak erantzukizunpeko adierazpena sinatuko du kontratua gauzatzen hasi aurretik..

4 Segurtasuna eta konfidentzialtasuna

Izaera erreserbatua edo pertsonala duten zifratu gabeko informaziodun ekipoak konpontzeko edo suntsitzeko ez dira beraien ohiko lekuetatik aterako. Aparteko arrazoiengatik material hori bere instalaziotik kanpo garraiatzea ezinbestekoa balitz, datuak gordetzeko gailuekin honela egingo da:

- ❑ Euskarri ateragarriak: ekipoetatik aterako dira eta haien erabiltzaileei entregatuko zaizkie.

- ❑ Euskarri finkoak: informazioaren ezabatze logiko bat egingo da, eta hura ezingo dela berreskuratu bermatuko da informazio garrantzitsua ez duen euskarriko eskritura guztiarekin. Hori ezingo balitz egin, Getxoko Udaleko IKT unitateari ezabatze hori ezin dela egin jakinarazi beharko zaio, azken horrek erabaki dezan euskarri horrekin zer egin.

5 Kaudimeneko gutxieneko irizpideak

Enpresa lizitatzaileek mikroinformatikaren hornidura eta mantentze-lanen sektorean esperientzia dutela egiaztatu beharko dute, eta pertsona fisikoa edo juridikoa izan beharko dute, jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute eta kaudimena egiaztatu beharko dute.

5.1 Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa

Lizitatzaileak negozioen urteko bolumen bat egiaztatu beharko du, eta amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteak 30.144,6 eurokoa izan beharko du gutxienez (BEZik gabe). Lizitatzailearen edo hautagaiaren negozioen urteko bolumena Merkataritza Erregistroan aurkeztutako eta onetsitako urteko kontuen bidez egiaztatuko da, baldin eta enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago; halakorik ezean, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean utzitakoen bidez egingo da.

Baliozkotze Kod.: 9PWYC6Z7MMJ72E4H5C6RWRRNE
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 19. orrialdea, guztira 27

Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek negozioen urteko bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen nahiz urteko kontuen liburuen bidez egiaztatuko dute.

5.2 Kaudimen teknikoa eta profesionala

Lizitatzaileek antzeko lanetan (hornidurak eta mantentze-lanak) esperientzia dutela egiaztatu beharko dute, eta lan horiek azkeneko hiru urteotan arlo publikoan zein pribatuan egindakoak izango dira. Esperientzia hori organo eskudunak egindako ziurtagirien bidez egiaztatuko da, zerbitzuen hartzailea erakunde publiko bat izan denean; eta enpresaburuaren adierazpen edo ziurtagiri baten bidez, zerbitzuen hartzailea erakunde pribatu bat izan denean. Ziurtagiri horietan, enpresa lizitatzaileak hiru urte horietako egikaritze gehieneko urtean 20.096,4 euroko (BEZa kanpo) zerbitzuak egin dituela egiaztatu beharko da. Zerbitzuak plegu honen xede den zerbitzuaren berdinak edo antzekoak izan beharko dira. Zerbitzuek izaera bera edo antzekoa dutela ulertzen da CPV bakoitzaren lehenengo digituak berdinak direnean. Egindako zerbitzu edo lanak organo eskudunak eman edo onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea denean; hartzailea subjektu pribatua denean, aldiz, hark emandako ziurtagiri baten bidez edo, horrelako ziurtagiririk ez badago, enpresaburuaren adierazpenaren bitartez egiaztatuko da. Zerrendan jasotako zerbitzuen egikaritze egokiaren ziurtagiriak (haien hartzailea sektore publikoko erakundea izan denean) zerbitzuak kontratatzen dituen erakundeak zuzenean jakinarazi ahalko dizkio kontratazio-organoari.

Zerbitzua eta ekipoen bizitza egokia bermatzeko, lizitatzaileak HPk eta Lenovok (kontratu honen xede diren ekipamenduen fabrikatzaileak) zerbitzu tekniko ofizial gisa ziurtatu behar dituzte, kontsumo-elementuak barne (hala nola, bateriak). Justifikatzeko beharrezko diren agiriak aurkeztuko dira horretarako.

5.3 Enpresa sortu berriak

Enpresa sortu berrien kasuan, hau da, azken bost urteetan eratu direnen kasuan, kaudimen ekonomikoa egiaztatzeko aukera gisa ezartzen da finantza-erakunde batek gutxienez 20.000 euroko finantza-nahikotasunari buruzko txostena aurkeztea. Kaudimen teknikoa egiaztatzeari dagokionez, kontratua gauzatzeko erabilgarri dauden teknikariak edo unitate teknikoak bakarrik adierazi beharko ditu, enpresan integratuta egon zein ez.

Era berean lizitatzaileak HPk eta Lenovok zerbitzu tekniko ofizial gisa ziurtatu behar dituzte, kontsumo-elementuak barne (hala nola, bateriak). Justifikatzeko beharrezko diren agiriak aurkeztuko dira horretarako.

6 CPA eta CPV

- CPA: 62.09 Informazioaren eta informatikaren teknologiaren beste zerbitzu batzuk.
- CPV: 50312000-5 (ekipo informatikoa mantentzea eta konpontzea), 50320000-4 (ordenagailu pertsonalak konpontzeko eta mantentzeko zerbitzuak)

7 Adjudikazio-irizpideak

Aurkeztutako eskaintzen balorazio-irizpideak ondoko baremoaren arabera banatuko dira:

Baliozkotze Kod.: 9PWYC6Z7MMJ72E4H5C6RWRRNE
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 20. orrialdea, guztira 27

Irizpide automatikoak .....100 puntu.
Irizpide teknikoak.....11 puntu

☑ **Erantzun-denbora hobetzea.....5 puntu**
Erantzun-denboran 30 minutu murrizten den bakoitzeko, puntu bat emango da. Gehienez 5 puntu lor daitezke. Gutxieneko erantzun-denbora 30 minutu dira.

☑ **Konpontzeko denbora hobetzea.....6 puntu.**
Konpontzeko denboran 60 minutu murrizten den bakoitzeko, puntu bat emango da. Gehienez 6 puntu lor daitezke. Matxura konpontzeko gutxieneko denbora 1 ordu da.

Irizpide automatikoak.....89 puntu.
☑ **Ekipoak mantentzeko hileko kuota .....89 puntu**
Honako eran kalkulatuta:

Modeloa	HILEKO GEHIENEKO PREZIO UNITARIOA, BEZ GABE	ESKAINITAKO HILEKO UNITATEKO PREZIOA, BEZ GABE	Kopurua	Eskainitako unitateko prezioa bider mantendu beharreko unitate-kopurua	
EliteBook 840 G8	**1,70 €**		**19**		
ProBook 650 G8	**1,49 €**		**105**		
Lenovo ThinkPad X1 Carbon	**1,40 €**		**8**		
ProOne G6 22	**1,38 €**		**67**		
ProOne G6 22 Táctil	**1,47 €**		**5**		
Prodesk 600 G6	**1,23 €**		**546**		
Z2 SFF G8	**4,88 €**		**5**		
Z2 Torre G8	**5,05 €**		**18**		
E23 G4	**0,80 €**		**658**		
E24 G5	**0,80 €**		**1**		
E27 G4	**0,84 €**		**8**		
E27 G5	**0,84 €**		**1**		
USB-C Dock G5	**1,30 €**		**41**		
			Eskeinitako prezioa bider mantenudu beharreko unitate-kopuruaren batuketa =		**HILEKO ZENBATEKO OSOA, BEZik gabe**

Baliozkotze Kod.: 9PWYC6Z7MMJ72E4H5C6RWRRNE
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 21. orrialdea, guztira 27

Aurkeztutako eskaintzen balorazio ekonomikoa egingo da kasu bakoitzean aplikagarria den BEZa kontuan hartu gabe.

Pleguetan agertzen den gehieneko puntuazioa eskaintza baliagarritzat hartzen direnen artean onenari emango zaio.

Gainerako eskaintzei honako formula hau aplikatuko zaie:

$$\text{Oinarrizko puntuazioa} = \frac{\text{Gehieneko puntuazioa X Eskaintzarik onena}}{\text{Aztertu beharreko eskaintza}}$$

Balorazio ondorioetarako lizitazio mota 0 (zero) izango da. Eskaintza baliodunik onena 0 (zero) baldin bada, 0,01 balioa kontuan hartuko da balorazioa egiteko.

8 Fakturazioa

Getxoko Udala ekipamenduaren kostua ordaintzeko erakunde arduradun bakarra izango da; hala, hilero faktura bakar bat egingo du bere izenean.

9 Kontratuaren balio-denbora

Kontratuak urtebeteko indarraldia izango du, egungo mantentze-kontratua amaitzen den egunetik zenbatzen hasita, baina inoiz ez 2025eko maiatzaren 1a baino lehen.

Kontratua urtero luzatu ahal izango da, gehienez hiru aldiz.

10 Lizitazio-tasa

Kontratu honen gehieneko zenbatekoa, kontzeptu guztiak eta BEZa barne hartuta, ezin izango da izan 24.316,64 €/urteko baino handiagoa, 4.220,24 euroko BEZa barne (% 21).

11 Gehieneko unitateko prezioak

Hileko gehieneko unitateko prezioek, BEZik gabe, ez dituzte ondorengo zenbatekoak gainditukо:

Mota	Modeloa	Hileko gehieneko unitateko prezioa
Ordenagailuak	EliteBook 840 G8	1,70 €
	ProBook 650 G8	1,49 €
	Lenovo ThinkPad X1 Carbon	1,40 €
	ProOne G6 22	1,38 €
	ProOne G6 22 (ukipen-pantaila)	1,47 €
	Prodesk 600 G6	1,23 €
	Z2 SFF G8	4,88 €

Baliozkotze Kod.: 9PWYC6Z7MMJ72E4H5C6RWRRNE
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 22. orrialdea, guztira 27

	Z2 G8 dorrea	5,05 €
Pantailak	E23 G4	0,80 €
	E24 G5	0,80 €
	E27 G4	0,84 €
	E27 G5	0,84 €
Osagarriak	USB-C Dock G5	1,30 €

Beraz, hileko gehieneko zenbatekoa, BEZik gabe, 1.674,70 eurokoa izango da.

12 Aurrekontuaren banakapena

AURREKONTU XEHATUA EUROTAN		
KONTZEPTUA		**ZENBATEKOA**
ZUZENEKO KOSTUAK	Langileen gastuak	5.000,00 €
	Gastu materialak	11.887,73 €
	GASTUAK: Inbertsioa / Amortizazioa	0,00 €
	Beste hainbat GASTU (garraioa, muntaketa...)	0,00 €
ZEHARKAKO KOSTUAK		2.195,40 €
MOZKIN INDUSTRIALA		1.013,26 €
BEZa (% 21)		4.220,24 €
LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA GUZTIRA		24.316,64 €

	KATEGORIA (pertsona-kop.)	GENEROA (pertsona-kop.)	ZENBATEKOA (eurotan)
Langileen GASTUEN BANAKAPENA	1 Administratiboa	1 (generoa kontratistak definitzeke)	1.200,00 €
	2 Euskarrri teknikari	2 (generoa kontratistak definitzeke)	3.800,00 €
Erreferentzia gisa hartutako lan hitzarmena:	Iritzi publiko eta merkatu azterlanen eta aholkularitza.		

Baliozkotze Kod.: 9PWYC6Z7MMJ72E4H5C6RWRRNE
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 23. orrialdea, guztira 27

I. ERANSKINA

DATU PERTSONALAK TRATATZEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

…….. jaun/andreak ..... jaunak/andreak (NAN: .....), ……..…… enpresaren (IFK: ……..) izenean eta hura ordezkatuz, zeina 2023tik 2027ra GETXOKO UDALEAN BIDEOAREN, INSTRUSIOAREN ETA TELEKONTROLAREN UDAL SISTEMA MANTENTZEKO ZERBITZUAREN kontratuko enpresa adjudikazioduna baita (6415) zenbakidun espedientean eta zeina aurrerantzean TRATAMENDU-ERAGILEA izango baita,

Honako hauek betez: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa, bai eta hori garatzeko araudia ere.

ADIERAZTEN DU

1.- Lehen zehaztutako espedientean aipatutako kontratua egikaritzeko erabiliko diren zerbitzariak eta horiei lotutako zerbitzuak honako hauek dira:

ZERBITZARIEN KOKAPENA
Ez dago enpresa esleipendunaren zerbitzaririk

2.- Konpromisoa hartzen du kontratua indarrean den bitartean zerbitzarien eta ematen diren zerbitzuen kokapenean izandako edozein aldaketa berariaz jakinarazteko.

3.- Bere gain hartzen ditu GETXOKO UDALAk datu pertsonalen tratamenduari buruz ematen dizkion jarraibide hauek, bai eta TRATAMENDUAREN ERAGILEAREN funtzioak eta betebeharrak ere, zehaztapen hauen arabera:

Taldeak eta tratatzen diren datuak

Adjudikaziodunak tratatzeko erabil ditzakeen interesdunen taldeak eta Datu Pertsonalak hauek dira:

INTERESDUNEN KATEGORIAK

- ☐ HERRITARRAK
- ☐ EGOILIARRAK
- ☐ ZERGADUNAK
- ☐ HORNITZAILEAK
- ☐ ELKARTEKIDEAK EDO KIDEAK
- ☐ JABEAK EDO ERRENTARIAK
- ☐ PAZIENTEAK
- ☐ IKASLEAK
- ☐ LEGEZKO ORDEZKARIAK
- ☐ HARREMANETARAKO PERTSONAK
- ☐ ESKATZAILEAK
- ☐ ONURADUNAK

Baliozkotze Kod.: 9PWYC6Z7MMJ72E4H5C6RWRRNE
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 24. orrialdea, guztira 27

☐ ETORKINAK
☐ ENPLEGU-ESKATZAILEAK
☐ KARGU PUBLIKOAK DITUZTEN PERTSONAK
☒ BESTE KOLEKTIBO BATZUK (ADIERAZI):

Erabiltzaileak

ESKURA DITZAKEZUN TRATAMENDUAREN DATU PERTSONALAK

☐ NAN/IFZ/AIZ/PASAPORTE ZENBAKIA
☒ IZENA
☒ ABIZENAK
☐ POSTA HELBIDEA
☒ POSTA ELEKTRONIKOA
☒ TELEFONOA
☐ SINADURA
☐ IRUDIA (ARGAZKIAK EDO BIDEOAK)
☐ SOINUAK (AUDIO-GRABAZIOAK)
☐ SARE SOZIALAK (TWITTER, FACEBOOK, INSTAGRAM, BESTEAK BESTE)
☐ SEXUA
☐ NAZIONALITATEA
☐ JAIOTERRIA
☐ JAIOTEGUNA
☐ ADINA
☐ SEME-ALABA KOPURUA
☐ EGOERA ZIBILA
☐ EZAUGARRI PERTSONALAK (ALTUERA, PISUA, NEURRIA, BESTEAK BESTE)

☐ PRESTAKUNTZA-DATUAK (TITULU AKADEMIKOAK, DIPLOMAK, BESTEAK BESTE)
☐ ESPERIENTZIA EDO LANBIDE-HISTORIA
☐ LANBIDEA
☐ LANPOSTUA EDO LANBIDE-KATEGORIA
☐ LIZENTZIAK, BAIMENAK EDO BAIMENAK
☐ ELKARTEAK, KLUBAK ETA BESTE BATZUK
☐ JABETZAK EDO JABETZAK
☐ EKONOMIKOAK, FINANTZARIOAK ETA ASEGURUETAKOAK (BANKUKO DATUAK, KONTU KORRONTEA, TXARTELAREN ZENBAKIA, TRIBUTUEI, SOLDATEI ETA SOROSPENEI BURUZKO DATUAK, BESTEAK BESTE)
☐ MERKATARITZA-INFORMAZIOAREN DATUAK (JARDUERAK, NEGOZIOAK, BESTEAK BESTE)

Baliozkotze Kod.: 9PWYC6Z7MMJ72E4H5C6RWRRNE
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 25. orrialdea, guztira 27

☐ TRANSAKZIOEI BURUZKO DATUAK (INTERESDUNAK ESKAINITAKO ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK, INTERESDUNAK JASOTAKO ONDASUNAK 0 ZERBITZUAK, BESTEAK BESTE)
☐ ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOEI BURUZKO DATUAK
☐ DATUEN KATEGORIA BEREZIAK
☐JATORRI ETNIKOA EDO ARRAZA-JATORRIA
☐SINDIKATU-AFILIAZIOA
☐DATU BIOMETRIKOAK (AZTARNA DIGITALA, IRISA, BESTEAK BESTE)
☐OSASUN DATUAK

Tratamendu-prozedurak edo -sistemak:

☒ Automatizatua (Guztiz)
☒ Ez automatizatua (eskuz)

Tratatuko diren elementuak/eragiketak

Datu pertsonalen tratamenduaren barruan honako hauek sartzen dira: (markatu bidezkoa dena bakarrik)

☐ Egituraketa
☐ Kontsulta
☐ Interkonexioa (gurutzatzea)
☐ Erkatzea
☒ Bikoiztua
☒ Suntsitzea (aldi baterako kopiak)
☒ Berreskuratzea
☒ Kopia (aldi baterako kopiak)
☒ Segurtasun-kopia
☒ Behin betiko suntsitzea

Datuen xedea

Entitate adjudikaziodunak GETXOKO UDALAri itzuli beharko dizkio datu pertsonalak eta, hala badagokio, datu horiek dituzten euskarriak, prestazioa bete ondoren. Itzulketarakin batera, erakunde adjudikaziodunak erabilitako ekipo informatikoetan dauden datu guztiak ezabatu beharko dira.

Segurtasun-neurriak

Ezarri beharreko segurtasun-neurriak Europako Parlamentuaren 2016/679 DBEOren 32. artikuluan ezarritakoak izango dira, eta, bereziki, datuen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna bermatzeko beharrezkoak direnak, GETXOKO UDALAren segurtasun-jarraibide eta -irizpideen arabera. Hori guztia, bat etorriz maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren, Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duenaren, II. eranskinean (Segurtasun-neurriak) ezarritakoarekin.

Eranskina aldatzea

Kontratuaren betearazpenaren ondorioz beharrezkoa bada uneren batean eranskin honetan ezarri dena aldaraztea, adjudikaziodunak arrazoituz eskatuko du eta eskatzen dituen aldaketa horiek zehaztuko ditu.

Baliozkotze Kod.: 9PWYC6Z7MMJ72E4H5C6RWRRNE
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 26. orrialdea, guztira 27

Getxoko Udala eskatu den horrekin ados badago, eranskin eguneratu bat egingo du, eta, horrela, agiri horrek beti jasoko ditu era egokian tratamenduaren zehaztapenak.

Getxon, 202...(e)ko .....aren ....(e)(a)n.
Sinatuta: …….. jaun/andrea

Baliozkotze Kod.: 9PWYC6Z7MMJ72E4H5C6RWRRNE
Egiaztapena: https://sede.getxo.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 27. orrialdea, guztira 27